

# ELGOIBARKO LGBTI+ PERTSONEN BIZIPENEN BILKETA





**Testua:**  
Hiruki Larroxa  
(Egoitz Arbiol Albeniz)

**Ilustrazioak:**  
Janire Erre

**Diseinua  
eta maketazioa:**  
Original  
Komunikazio Grafikoa

**Hiruki Larroxa**  
[www.hirukilarroxa.eus](http://www.hirukilarroxa.eus)



# AURKIBIDEA

SARRERA .....	6
---------------	---

<b>MARKO TEORIKO-KONTZEPTUALA .....</b>	<b>8</b>
Feminismoa eta transfeminismoa .....	10
Generoa .....	11
Sexualitatea eta heteroaraua .....	13
Genero performatibitatea eta queer teorioren ekarpenak .....	14
LGBTI+ .....	16

<b>LGBTI+ PERTSONEN BIZIPENEN BILKETA .....</b>	<b>21</b>
---	-----------

<b>HERRIA: IKUSPEGIA ETA PERTZEPZIOA .....</b>	<b>22</b>
--	-----------

<b>HETEROARAUAREN INDARRA ETA HONEN ADIERAZPENA INDARKERIA HOMOFBOAN ETA LGBTI+ FOBOAN .....</b>	<b>30</b>
Heteroarauaren hainbat isla .....	32
Heteroarautik kanpo: zuzenketa eta ukazioa. ....	38

<b>INDARKERIAREN ONDORIOAK: ARMAIRUA, SEXILIOAREN ETA BIZIRAUPEN ESTRATEGIEN ARTEAN DANTZAN .....</b>	<b>50</b>
Armairua .....	52
Sexilioa .....	58
Eguneroko bizirapen estrategiak .....	64

<b>LGBTI+ PERTSONEN BIZIGARRITASUNA .....</b>	<b>68</b>
Onarpena .....	70
Erreferenteak .....	73
Artikulazioa .....	78

<b>ARLOZ ARLO PERTZIBITZEN ETA JASATEN DEN HOMOFOBIA ETA LGBTI+ FOBIA ETA HAINBAT ERALDAKETA PROPOSAMEN ....</b>	<b>80</b>
Harreman sareak: familia eta kuadrilla .....	82
Hezkuntza .....	83
Aisialdia .....	84
Kultura .....	84
Espazio publikoa .....	85
Parte-hartze politikoa .....	85
Osasun arloa.....	86
Lan-arloa .....	86
Administrazio publikoa.....	87
Bestelakoak .....	87

# SARRERA

**E**sku artean duzun ikerketa honek, 2022an zehar hainbat Elgoibartarri egindako elkarrizketetan du oinarria. Elgoibarren, Euskal Herriko beste herri eta hiri guztietan bezela, heteroaraua indar handiko egitura bat da. Egitura honek efektuak ditu herritarren gorputz, nortasun, bizi itxaropen, hautu, rol eta jokaeretan. Zer egin daitekeen eta zer ez mugatzen du; zer den onargarria eta zer ez zehazten du; zer irudikatu daitekeen eta zer ez markatzen du. Baina batez ere “gu” bat definitzen du, “normala”, desiragarria, betikoa dena, eta “beste” seinalatzen du: normala ez dena, araua betetzen ez duena, disruptiboa dena.

**L**an honen atzean dagoen helburu bat araua seinalatzea da Elgoibarko LGBTI+ pertsonetan dituen efektuen bidez, araua agerikoa egitea, alegia. Izan ere, araua agerikoa egiten dugunean, barneratuak eta naturalak direla uste dugun elementuen inguruan pentsatzen hasi gaitzke. Pentsatzen hasi gaitzke, norberak zein mailatan betetzen duen arau hori, eta baita besteengandik desberdin egiten gaituen hori zalantzarria dela. Hau da, zalantza agertzen da bizitzan. Zalantza leku benetan interesgarri bat da eraldaketarako bidean hausnarketa bultzatzen baitu eta baita solasa piztu pertsonon artean ere. Solasaldi horietan ni eta bestearen arteko geruza edo mintza hausten da, eta baita gu uniformearen eta normalaren eta bestearen artekoa ere. Eta, noski, mintz hori desagertzen denean, bestearen mina errekonozitzeko ateak zabaltzen dira, baita bestea aitortzekoa ere. Eta hau da, agian, lan honen zeharkako helburua: “gu” hori sexu-genero aniztasuna bere egingo duen komunitate zabal, aske eta askotarikoan bilakatzeko tresna izatea.

# MARRO TEORIKO- KONTZEPTUALA

Atal honen helburua da, Elgoibarko LGBTI+ pertsonen bizipenen bilketan topatuko diren hainbat kontzeptu eta terminoen mapa kontzeptual edo oinarri teorikoa jasotzea. Besteak beste: feminismoa eta transfeminismoa, generoa, sexualitatea eta heteroaraua, genero performatibitatea, queer teorien ekarpenak eta LGBTI+ terminologia.

---



## Feminismoa eta transfeminismoa

**A**ngela Davisen “*Feminismoa, emakumeak pertsona garela defendatzen duen ideia erradikala da*” esalditik abiatuta, zapalkuntza sistemen eta haiek sortzen dituen indarkeria, zapalkuntza eta injustizien irakurketarako pentsamendu teoriko-politiko bezala ulertu daiteke feminismoa. Halaber, Euskal Herrian berebiziko indarra duen herri mugimendua da eta pentsamendu feministari ekarpen handia egin zaio bai kaletik eta baita akademiatik ere. Baina, zein da feminismoaren eta LGBTI+ edo sexu askapenerako mugimenduaren arteko elkargunea?

Feminismoan korrante asko izan badaitezke ere, LGBTI+ mugimenduarekin elkartzen dena *transfeminismoa* da. Transfeminismoa feminisмотik datorren korrante politiko bat da, zeinak zapalkuntza-ardatz bezala, generoaz gain, klasea, arraza eta funtzionaltasuna ere barnebiltzen dituen, gorputzak ekoizteko, kontrolatzeko eta mugatzeko erabiltzen den botere sistema gisa, identitateen konplexutasuna azaleratuz eta “*arrarotasuna*” aldarrikatuz. Transfeminismoak, hortaz, emakumeek\* bizi dituzten zapalkuntzak erdigunean izateaz gain, LGBTI\* pertsonak, arrazializatuek, zein aniztasun funtzionala duten pertsonak edo desgaituek egunerokoan bizi dituzten bazterkeria eta indarkeriazko egoerak mahai gainean jartzen ditu, eta indarkeria oro desagertzeko borrokatzen du.

Horregatik, ezinbestean LGBTI+ pertsonen eskubideen aldeko jarduna transfeminismoan ere kokatzen dugu, gorputzen

eta haien sexualitateen irakurketa kritikoaren inguruan ematen duen ikuspegiagatik eta zapalkuntza anitzen analisisan sakontasuna eta konplexutasuna ekartzen duen interseksionalitateagatik.

## Generoa

**G**enero kontzeptua medikuntza eta psikiatrian aurkitzen da lehenengoz, baina feminismoak erabilia hartu du indar handia hitzak, batez ere, kategoria analitiko bezala. Genero hitza erabili ez zuen arren, Simone de Beauvoir izan zen aitzindari emakumetasunaren izaera eraikia agerikoa egiten, “emakumea ez da emakume jaiotzen, egin egiten da” esaldi famatuarekin. Beauvoirren ustez, jaio egiten den gorputzak ezaugarri batzuk dituen arren (sexua litzakeena), jarrerak, rolak, besteekin harremanak izateko moduak... ikasi egiten ditugu eta gorputza zirkunstantzia bat besterik ez da.

Gayle Rubinek *sexu-genero sistema* kontzeptua sortu zuen, eta aitzindaria izan zen esplizituki genero hitza erabiltzen. Bere iritziz, sexualitate biologikoa giza-jarduera produktuetan bilakatzeak antolaketa soziala da generoa. Sistema horrek sailkapen hierarkiko bat egiten du generoen artean: gizon generoa duena, pribilegiatu egiten du, eta emakume generoa duena, zapalkuntza egoeran jartzen du. Rubinen ekarpenek eta korrante berekoek bere garaian aldaketa esanguratsu bat ekarri zuten arren, generoa sexu dimorfismoan oinarritzeak

auresuposatzen du sexua bera naturala dela. Sexua eta generoarean artean menpeko lotura dago, lehena a priori-koa da, hau da, aurretik jada badagoen errealitate bat da eta bigarrena, berriz, eraikuntza soziala da. Aurrerago ikusiko dugun moduan, feminismotik eta queer teoretatik, sexu diferentziazioaren izaera ideologikoa ere agerian jarriko da.

Genero sistemen teoria generoa ulertzeko baliagarri izango zaigu. Honen arabera, Raewyn Connellen hitzei jarraituz, generoa harreman- edo praktika-sozialen egitura antolatzeke sistema bat da. Beraz, gizarteak sistema sozial gisa aztertzen dira, non boterea eta prestigioa dagoen, eta hierarkizatu eta antolatu egiten diren gizon eta emakumeen arteko harremanak, baita gizonen artekoak eta emakumezkoen artekoak ere. Connellek generizazio prozesua hiru eragin esparrutan zatitzen du: gorputza edo gorputz-esperientzia, nortasuna edo identitatea eta sexualitatea. Prozesu honetan, egunerokotasuneko jarduna erreproduzioaren esparruaren inguruan antolatzen dute gorputz egiturek eta erreproduzio prozesuek. Generoa, ikuspegi horren arabera, gorputzei etengabeko erreferentzia egiten dien gizarte-praktika bat da, nahiz eta ez mugatu gorputzera.

Generoa eta sexualitatea ez dira gorputzei berez lotuta dauden ezaugarriak, Paul Preciadok dioen moduan, teknologia politiko konplexu batek sorturiko efektuak baizik, gorputzetan, portaeretan eta harreman sozialetan eragiten dutenak, batik bat.

## Sexualitatea eta heteroaraua

**P** Paul Preciadok aipatzen duenez, giza zientzien arloan, *sexualitatearen* inguruko lehen ikerketek medikuntzan, psikiatrian eta psikologian izan zuten abiapuntua, eta haien helburua izan zen normalizazioa, patologizazioa eta preskripzioa. XIX. mendean perbertsioaren eta heterosexualitatearen tarteko oposizio edo aurkakotasun bat sortu zen, eta instituzio mediku-legalek zientziaren diskurtsoa baliatu zuten arau heterosexuala indartzeko. Zentzu honetan, Michel Foucaultek sexualitatearen inguruan eginiko ekarpenak oso esanguratsuak izan dira. Zientzia modernoak gorputzei buruz sortzen dituen ezagutza eta boterera sexualitatearen bidez gorpuzten dira, eta botere hori esplizitua ez den botere baten eta objektibotzat jotzen den diskurtso baten atzean ezkututzen da.

Adrienne Rich eta Monique Wittig autore feminista lesbianek plazaratu zuten lehen aldiz sexualitatea ez zela sexu praktika bat, erregimen heterosexualak sorturiko produktu bat baizik. Richek “derrigorrezko heterosexualitatea” kontzeptualizatu zuen lehen aldiz, heterosexualitatea bortxaz ezarritako arau-sozial bat dela azaltzeko eta ez orientazio sexual bat. Lesbianismoaren ikusezintasuna sortzen du instituzio politiko honek eta aukera bakar bezala aurkezten du emakumeek gizonekin harremanak izatea. Bere aldetik, Wittigek “pentsamendu heterozuzena” izena jarriko dio gure jendartean nagusitzen den pentsaera nagusiari, hau da, *heteroaraua*.

Heteroarauaren bidez, historia, errealitate soziala, kultura, hizkuntza eta beste edozein gertakari subjektibo baldintzatu egiten dira heterosexualitatearen ustezko unibertsaltasunaren baitan. Gizonak eta emakumeak sistemaren menpe dauden eta sistemari men egiten dioten gorputzak dira, eta haien arteko harremanak erregimen heterozuzenaren bidez erregulatzen dira. Derrigorrezko heterosexualitateak emakumeak eta sexualitate gutxituak zapaltzen ditu, gizonen nagusitasuna erreproduzitu nahi baitu, eta emakumeen menpeko egoera bermatu. Sexu desberdinkeria erregimen honek sortutakoa da. Alegia, Wittigek esango du gizon eta emakumeak ez direla zapalkuntza harremanaren aurretik existitzen, zapalkuntza harremanak sortzen duelako sexua eta ez alderantziz.

## Genero performatibitatea eta queer teorien ekarpenak

90eko hamarkadako ekarpen feminista postestrukturalistetan ahots esanguratsua izan zen Judith Butler. Butlerrek genero performatibitatearen teoria proposatu zuen, arestian aipatu diren egileek generoa eta sexuaren inguruan eginiko ekarpenak uztartuz, eta hein batean, eta irakurketa postestrukturalista eginez. Beste egile batzuekin batera, queer teorien aitzindarietako bat da. Butlerrek Louis Althusserren interpelazioaren teoria erabili zuen oinarritzat honetarako.

Althusserrek interpelazio kontzeptua erabili zuen norbanakoa subjektubihurtzeko prozesua azaltzeko. Legearen interpelazioak menpeko subjektua sortzen du, aldi berean, subjektua prozesu honen aurretik existitzen zenaren ilusioa sortuz. Generoaren

kasura ekarriz, ideologia menperatzaileak gizon eta emakume bezala interpelatzen gaitu, eta interpelatuak sentitzean, dominazio aparatua legeak barneratzen ditugu. Beraz, ez gara itzultzen norbaitek deitzerakoan gizon edo emakume garelako, are, gizon edo emakume gara itzuli egin garelako, une horretan, ostean eta aurretik, gizon edo emakume izan garenaren ilusioa sortzen dugulako. Esan nahi da, jendarteak prozesu honetan eraginik ez izatearen ilusioa sortzen dela, eta generoa, hau da, emakume edo gizon izatea esentzia edo barruan “naturalki” dugun zerbaiten moduan pertzibitzen dela.

Butlerrek etengabeko prozesu dinamiko moduan definitzen du interpelazioa, dinamikoa dena eta aldatzen doana. Generoa performatiboa dela dioenean, esan nahi duena da ez dagoela kulturaren aurrekoa den gizon edo emakume izatearen esentziarik. Alegia, naturalizat jotzen duguna, erregulazio, errepikapen eta zigorren bitartez taxutzen dela, errepikatzen diren jarrera eta jokabideen bitartez. Eta, aldi berean, erantzuna eta aldatua izan daitekeela. Javier Saez eta Sejo Carrascosak laburtu duten moduan, heteroarauaren ideia zurruna izan beharrean, kanpoan kokatzen den zapalkuntza baten, egunero berregituratu eta martxan mantendu behar den erregimen baten moduan ikusi behar dugu, zeinetan denon parte hartzea beharrezkoa den hein handiago edo txikiago batean.


## LTGBI+

**L**GBTI+ komunitatearen inguruan hitz egiten denean, orotara, ortzadar koloreko banderaren atzean dagoen talde homogeneoan pentsatzen da. “Komunitate” kontzeptuak, gainera, batasun, artikulazio eta elkarreragin irmoa duen giza-multzoa izatearen ilusioa sortzen du. Kontrara, sigla horien heterogeneotasuna handia da eta sigla bakoitzaren atzean dagoenaren bizipena oso ezberdina, are gehiago, aldakorra. Honegatik guztiagatik, LGBTI+ terminoa zer den definitzea ez da hain erraza eta, gainera, definizioari berari buruzko eztabaida sozial konplexu eta jarraitua da, definizioa kulturala eta historikoki aldakorra delako, batetik, eta LGBTI+ edo sexu askapenerako mugimenduan definizioaren beraren inguruko eztabaida irekia dagoelako, bestetik. Honenbestez, sexu-genero sistema zalantzan jartzen duten gorputz, izate eta desiren aitortza baten errealitate bezala ulertuko dugu LGBTI+ kolektiboa.

LGBTI+ izatea, sexu-genero sistema (*1. irudia*), *heteroaraua*<sup>1</sup> eta *zisaraua*<sup>2</sup> zalantzan jarri eta arau hauen disidente izatea da. Sigla hauen erabilerak askotan aurretik aipatutako kolektiboaren homogenitatea eta hainbat deserosotasun ekar ditzake. Horregatik, LGBTI+ pertsonen inguruan gabiltzanean, aurretik aipatutako arau eta sistemak hausten dituen pertsonen inguruan arituko gara. Jarraian, sigla bakoitzaz ari garenean, zertaz ari garen azalduko dugu.

**LGB:** Lesbiana, gay eta bisexualak. Heterossexualak ez diren pertsonen desira edo orientazio sexuala genero bereko pertsonengana orientatzen da. Bisexualen kasuan, beraien sexu edo genero bereko edo beste generoko pertsonengana. Sigla hauetan sartu daitezke ere, testuinguru historikoagatik, homosexual bezala identifikatzen direnak edota aukera politikoagatik *marika* edo *bollera* moduan autodefinitzen direnak ere bai.

**SEXU-GENERO SISTEMA**  
**HIRU DIMENTSIO: SEXUA, GENEROA ETA DESIRA**



1 Irudia: Kualitate Lantaldea eta Aldarte, 2018.

<sup>1</sup> Erregimen sozial eta kulturala, sexu/genero sistema bitarra baliozkotzat jotzen duena eta heterossexualitatea bizimodu natural, normal eta egoki bakartzat hartzen duena; botere-harremanak eragiten ditu, eta heterossexualak ez diren pertsonen jazarpena eta bazterketa sustatzen ditu.

<sup>2</sup> Inposizio soziokulturalen multzo bat, zeinak pertsona guztiak zisexualtzat aurreuposatzen dituen; hau da, jaiotzean sexu femeninoa-emea esleitu eta emakume gisa identifikatzen direnak, edo sexu maskulinoa-arra esleitura, gizon identifikatzen direnak. Honek, zisexualak ez diren pertsonak jazarpen eta bazterketa egoera batetan kokatzen ditu.


**T:** Trans\* terminoak, emakume eta gizon izatearen arauaren mugak gainditzen dituzten pertsonak hartzen ditu bere baitan, zeinak sexu-genero sistemaren zurruntasuna agerian uzten duen. Trans pertsonen kategorian sartzen dira transgenderoak, transexualak, pertsona ez-bitarrak... Hau da, jaiotzerakoan ezarritako generoa zalantzan jartzen duen pertsona oro sartzen da kategoria honetan.

**I:** Intersexualak: Jaiotzerakoan sexu-biologiko anbigua (sexua ar edo eme moduan kategorizatzeke zailtasun edo ezintasuna dagoenean) duten pertsonak. Sexuen kategorizazio bitarretik at kokatzen diren heinean, sexu bitartasuna zalantzan jartzen du pertsona hauen existentziak.

**+** Siglen osteko “+” honetan, sexu-genero sistematik at kokatzen diren hainbat eta hainbat kategoria kokatzen dira. Heterosexualitateatik irteten diren hainbat errealitate ere bertan ulertu daitezke: asexualak, pansexualak, demisexualak...

Heteroarautik irteten diren izate ez-normatiboak dira azken batean LGBTI+ siglen atzean dauden errealitateak. Horrek erakusten digu, sexu-genero sistema eta heteroaraua bezalako eskema mentalak aldatu egin behar direla jendartean. Horren aurrean, sexu identitatearen dimentsio ezberdinak modu zurrunean eta dikotomikoan ulertu beharrean, continuum (2. irudia) bezala ulertzeak, giza sexualitatearen aniztasuna ulertzen lagunduko digu.

## Sistema bitarretik eta heteroarautik haratago



2 irudia: *The Genderbread Person*. Sam Killermann (egokitua<sup>3</sup>).

<sup>3</sup> Irudi honek continuumaren ideia ongi azaltzen badu ere, kontuan izan behar da dimentsio bakoitza ez dela gorputz atal batean kokatzen.



**LGBTI+  
PERTSONEN  
BIZIPENEN  
BILKETA**

# HERRIA: IKUSPEGIA ETA PERTZEPZIOA

Egin ditugun elkarrizketetan LGBTI+ pertsonen herriaz duten iruditeria marraztu ahal izan dugu. Hasiera batean, bilketatik ondorioztatu denez, Elgoibarren, azken urteetan berdintasunaren eta onarpenaren dinamika instituzional orokorreari jarraikiz, LGBTI+ gaietan normalizazio bat izan dela adierazi da; *bestea* apurka-apurka onartzeko dinamika bat nabaritzen da batzuen aldetik, eta esparruak gero eta anitzagoak direla adierazi da. Ez kasu guztietan, baina.

---



*Elgoibar [...] politikoki korrektua da oraintxe. Nire anaia ni baino 10 urte gutxiagokoa da eta beraiengan badago diskurtso bat gure garaian etzeona. [...] Bai, nik uste baietz aurrerapausuak eman direla eta txip aldaketa eman dela baña todavía queda un camino por hacer...*

**L003**

*Nik uste dut geroz eta frikiagoak gabela entre comillas; nik uste dut bastante, o sea, sartzen naizela dentro de lo comunmente aceptado [...] jendiak bai onartzen duela gehiago bestearen jarrerak edo kolektiboko pertsonak [...]. Uste dut gero eta frikiagoak gabela eta gero eta normalizatuagoa dugula. [...] Gero, tabernen aldetikan uste dut Kaia por ejemplo bastante dibertsuagoa dala musikan aldetikan, incluso ematen dizula aukera interaktuatzeko eta zuk nahizun musika ipintzeko.*

**G009**

*Dakat sentsazio mikatz bat ere, ikusten dudalako gauzak ez diala ia aldau, nik pentsatzen naban gaur egun [...] beste modu batera biziko ziala, baina ikusten dut dinamikak apurtzea eta aldatzea oso zaila dela.*

**G010**

Azalekotasun honetatik harago, herrian eraldaketa txiki bat gertatzen denean aktibatzen diren dinamikei erreparatu nahi diegu orain, eta hortik, herriaren nolakotasunean sartu. Gau giroko tabernetako musikak izan zitzakeen mezu matxista eta misoginoei alternatiba eskaintzeko dinamika abiatu zen udalean 2018-2019 inguruan eta zabaldu zen mezua, Elgoibarko herriak reagettoa debekatzen zuela izan zen, eta horrek arrabots handia sortu zuen:

*Hor egon zan el conflicto. Bidali zitzaien 2018-2019an tabernereri lista bat reaggetoia eta abesti matxistak sahiesteko eta como alternatibak tabernetan ipintzeko; eta ageri zan “Elgoibar prohibe el reaggeton”. Derivó por ahí. Fué ridiculo.*

**G009**

Herri aske moduan pertzibitzen duten galdetu zaie elkarrizketatuei, eta baiezko kasuetan, askatasun hau beste herriekin alderatuz edo muga sendoak azaleraziz sortzen da:

*Es que uste dot toki txarragoak egon ahal diala, ez dakit. Orduan, uste dot baietz (herri irekia dela).*

**L006**

*A ver, nik uste dot aske bizi ahal zeala, ningun problema. [...] Ez dot uste danik herri bat donde te puedan agredir, es que nik uste nahiko irikixa dala parte hortikan. Nerire igual ez zaitelako gertatu ezer... Nei adibidez takoiak asko gustatzen zaizkit pero paso Elgoibarren hola ateatzea ta denak beida gelditzea era komentaxuak entzutea. Baina da igual ni holakoa naielako.*

**G001**

*Hola (janzkera femeninoaz) jantzita jun nintzan egunean, kuadrilara iritxi nintzan (eta) esan neban “medio Elgoibar está con tortículis. O sea, kaletikan nixen eta igarritzen naban zelan ni pasau ta jendiak iten zaban (goitik behera begiratzeko keinua)... (Eta pentsatzen nuen) Mírame tranquilo, si no tengo ningun problema, o sea, esan nahi dot... Baña buelta ematen dotenean hola eta aurpegixak... [...] Nik ulertzen dot ebai eurentzako diferencia izan behar dela, baña o sea...*

**G001**

Azken horrekin lotuta, txutxumutxu eta kotilleoen indarraz mintzatu dira elkarrizketatuak. Txutxumutxu askoko herri moduan bizi dute elkarrizketatu gehienek. Txutxumutxuen bitartez, komunitatea eta herria egituratu egiten da, berau osatzen duten kideen nondik norakoak komunikatuz. Baina txutxumutxuek, aldi berean, informazioa elkartrukatzeko esparru izateaz harago, arauaren barruan eta kanpoan zer dagoen adierazten dute. Eta Elgoibarren, herriaren nortasunetik ateratzen den eta heteroarauak marrazten duen bitartasunetik irteten den oro bihurtzen da txutxumutxurako bazka:

*Azken urteetan irikixaua, baina itxixa (izaten jarraitzen du). Oso kotilleo da herrixa, [...] kotilleo (de lo) que salga de lo normal: (baldin) bakazu bikote bat kanpotarra dana, (baldin) badakazu bikote bat zure sexu berdinekoa dana, (baldin) badakazu bikote bat dakana algo que pueda destacar...*

**B005**

*Ni akordatzen naiz armaixutikan atea nintzanean izan zan un poco como el cúmulo. [...] Eta había comentarios: “Oye, ¿te has enterado que A. es atzelari?” [...] Y digo yo pues... Baña bueno.*

**G009**

*(Nik) Bai sentitu dudala, “joe, egiten dudan mugimendu oro komentatua izanen da”. Ni haurdun no eta nire kuadrilakoek jakin izan zuten eta esaten dozu “ostra”. Oso gaizki pasatu nun momentu hortan, ze oso pertsonala zen. Nik [...] klasean komentario bat egin nion pertsona bati eta hortikan herrira zabaldu zen, herritik...*

*Que nik hemengo pertsonak ez ditut ezagutzen. Orduan ya beldur hori sartu zitzaiten, inseguridade haundia horrekin.*

**B008**

*Kotilleo maximo, ta sobretodo según ta ze familiakoa zeran ere bai, ta zure familiak zelako harremanak ditzun herrixan ba oaindiño eta gehio.*

**G007**

Hortaz, lehen zertzelada hauetatik ondorioztatu daiteke herri mugatzailea dela, askatasun sentipena muga batzuen barruan kokatzen delako (aurrerago ikusiko diren mugak) eta herriaren nortasunetik ateratzen den oro txutxumutxu-asaldagarri bihurtzen delako.

Baina, zein da herriaren nortasuna? Elkarrizketatuek aipatu digutenaren arabera, Elgoibar tradizioarekin lotzen dute. Festa giroan eta errituetan izaten den tradizioarekin baino gehiago, bizimodu tradizionalarekin lotu dute. Tradizioa terminoak, erabiltzen den kasuan, herriaren barne dinamikari egiten dio so. Zentzu horretan, adierazi da herriaren DNAn indar eraldatzaileek baino gehiago, egonkortzera eta aurretik datorren nortasunari eustera bideratutako indarrek operatzen dutela. Indar hori, tradizioarena, herriaren nortasunaren parte izanik, LGBTI+ pertsona moduan, Elgoibar nolakoa iruditzen zaien galdetuta, haien erantzunak, besteak beste, “itxia”, “politikoki mugatua”, “itxurakeriazkoa” eta “eredu konkretu batekoa” izan dira.

*Elgoibar da oso... Itxurakeria asko dau, batez be gauza sozialekin. [...] Pertsonalki nik ere esperientzia ona euki dot baina herri bezela iruitzen jata ez dala... Que no es acogedor, begiradak, eta hori guztia...*

**G011**

*Nik beti esan izan dut dala hiri bat eta ematen ditu hiriak dazkan zerbitzu eta beharrezko gauza guztiak, baina dinamiketan... herri txiki-txiki dinamikak ditu, o sea, denak ezagutzen gera, danek hitz egiten dute denetaz...*


**G007**

*Uste dut [...] Elgoibarren ez dagoela jakinduria (politiko) bat, dagoela, por decir, azalekoa. Nere ustez, ez da politikoko jakituna. Esaten dia las cosas por decir, ideologian aldetik.*

**B005**

*Oso jainkoa eta lege zaharra. Eskumakoa jarrerren aldetik, funtzionamendu eran, taldeak egiterako orduan. [...] Berez zentzu guztietan. Zu normaren barruan baldin bazaude, hau edozein gaiarekin ere, ez dezu inolako arazorik eukiko eta izango zara azeptatua. [...] Zoaz kaletikan zehar eta ikusten dan %99 eredu konkretu bat da eta hori zeozegatzik da. Pentsatzeko moduagatik da, tradizionalista dan herri bat delako. [...] Zein dan jendearen pentsakera oaindikan? Edo lan munduan (sartzen zara)... edo ikasketak bukatzen ditut, ahal badot unibertsitatera joaten naiz, gurasoekin bizi naiz, lan egiten hasten naiz, bikote harreman batean hasten naiz, berarekin bizitzea noa, umeak eukitzen ditut...*

**L003**



# HETERO- ARAUAREN INDARRA ETA HONEN ADIERAZPENA INDARKERIA HOMOFOBOAN ETA LGBTI+ FOBOAN

Orain arte, herria marrazteko ariketa egin dugu. Baina, nolakoa da herria egituratzen duen arau edo muga hori? Zeharka agertu den arren, atal honetan, heteroarauari, egituraren ikuspegitik, eta horrek sortzen dituen bestetasun, bazterketa eta indarkeriei erreparatuko diegu.

---



M

Muga orok, indar orok eta presio orok egitura bat behar du funtzionatu ahal izateko. LGBTI+ pertsonak *beste*a bezala sortzen dituen egitura heteroaraua da. Heteroaraua egiturazko fenomeno bat da, zeinak balio eta irudikapen sinbolikoetan oinarrituta, arau heterosexualetik

ateratzen diren pertsonen oinarrizko premiei, biziraupenari, ongizateari eta askatasunari kalte egiten dien. Honek ez du esan nahi heteroarauaren barruan kokatzen direnek ez dutenik haien bizitzetan mugarik bizitzen. Baina egia ere bada, heteroaraua betetzen dutenei onura eta pribilegio sozial, ekonomiko zein politikorako sarrera errazten zaiela.

## Heteroarauaren hainbat isla

Heteroarauaren ezaugarrietako bat da bere baitatik kanpo gelditzen diren praktika, nortasun edo adierazpenak ulerkaitz bilakatzea.

*Gogoratzen dut txikitan pare bat antzezpen egin genituela eskolan eta neskek soinekoa eraman behar zutela eta mutilek prakak. Nik prakak eraman nahi nituen eta inork ez zuen ulertzen zergatik, esaten zidaten neska izateagatik soinekoa eraman behar nuela, politagoa zela eta abar...*

**BEBO02**

Izan ere, heteroarauak sistema kontzeptual oso bat zehazten du, hitzak eta hauen esanahiak a *priorizkoak* bihurtuz. Esan

nahi da, hitzak eduki zehatz batzuez betetzen dituela, eta ostean, hitzon edukiak eztabaidatik kanpo uzten dituela (emakumea, gizon edo natura hitzak, adibidez). Hartara, adibidez, heterosexualitatea edo homosexualitatea hitzak soilik nor desiratzen dugun zehazten dutela uste dugu, praktika politiko oso bat barnebiltzen dutela pentsatu beharrean. Noski, heterosexualitate edo homosexualitate hitzen erabilera heteroarautuan, LGBTI+ pertsonak kuantitatiboki askozaz gutxiago izatea dakar, baina, sexu-genero aniztasunaren ikuspegitik begiraturako bagenu pertsonen errealitatea, ziurrenik, bestelako datu batzuk izango genituzke. Baina pertzepzio zabalduenak, oraindik ere bestetasunean kokatzen ditu LGBTI+ pertsonak, gehiengo natural eta normaletik kanpo.

*Nik ez dot uste gehiengo bat garenik. [...] (Uste dut) LGBT kolektiboa oraindik minoria bat geala orokortasun batean.*

**G009**

Honen aurrean, sexualitatea, generoa eta sexua arlo politikoaren barruan kokatzeak eraldaketa ekarri dezakeela aipatzen da.

*A ver, da sexualitatean irakurketa zein dan. Sexualitatea naturala ez da. [...] Orduan ulertu behar da bere alde politikoa ere badakala. Eta alde politiko hori koiuntura historiko eta toki batean ematen dala. Nik bai uste dut dala guztiz eraikitakoa. Bai identitatea, bai sexualitatea eta bai sexua. [...] Niri ya biolentoa iruitzen jata sistema guztia orokorrean, hasita kapitalismotikan, dala dagoen biolentzia nagusienetakoa. Orientazioa modu zurrun batean ulertzea ere oso biolentoa iruitzen zait ere: homosexuala...*

*Tipifikazio horiek itxiak, homosexuala, bisexuala... Eta generoa sistema moduan [...] guztiz biolentoa da.*

**G007**

Elgoibarren, heteroarauak zentzu egiturazkoan funtzionatzen duelako hainbat adibide adierazi dituzte gure elkarrizketatuek. Ondorengo aipuotan, normaltzat ematen den horren transmisioaren adibideak topatu ditzakegu. Txikitatik jaso denaren adibideak dira, elkarrizketatuei heterosexualitatea aukera normala eta naturala dela pentsarazten dietenak, hortaz, hortik kanpokoa ez naturala eta anomalia moduan ulertu beharrekoa dela.

*Normalidadea da Elgoibarren neskek mutilekin eta mutilak neskekin. Hori transmititu dia Elgoibarrek.*

**B005**

*Jaiotzen zarenetik markatuta zauz eta si eres tia te tienen que gustar los tios y viceversa. Y si sales de ahí, bueno... Vas a molestar, vas a molestar a gente. [...] (Adibidez) 3 urteko neska mutil bat jolasten daudenean bere ama dau esaten “Zer zarete, nobixuak?”. Es que... Estamos muy mal. Umiak dira eta jolastuko dabe eta ya esaten zaude que tiene que tener pareja y si eres una tia te tiene que gustar un tio. Es que ya hain txikitatik gabiz esaten ze nahi biazun, qué te tiene que gustar y cómo te tiene que gustar.*

**L006**

Eguneroko hezkuntzaren bidezko heteroarauaren egituratze honez gain, zaintza lanak egituratzen dituen sistema ere

bada. Baina zentzu sakonagoan, sistemak familiak egituratzen ditu arauaren eta espektatiben zein funtzionamenduaren ikuspuntutik, eta egoera sostengaezina egiten denean ere, gutxi mugitzeko aukera ematen duen espazio da.

*Igual zoziaz parkera. Lehen ziran danak emakumeak eta orain ikusten dituzu lau gizon mobilakin y sin hacer ni puto caso al niño, también te digo. Edo están ahí umeak jolasten daben bitarean pero (berak) ez daki (haurrak) zer afaltzen daben, ez da preokupatzen; o sea, ez daki, en realidad, etxea gestionatzen. Es que yo veo a hombres que hasta ahora les han cuidado sus madres y ahora sus parejas son sus madres. Es que es terrible. Eta zuk batzutan kuestionatzen dezu igual zure emakume lagun hori eta igual konzienteki pentsatzen dozu "joder hau, ¿qué está pasando aquí? ¿Qué esta pasando con vuestras vidas?" Y no les dan mas vueltas, "holan da eta holan da". [...] Ikusten dugu inguruan pareja heteroak ze gaizki dauzen... Sobretudo umeak dauzkatenak, zaintzarekin arazoak dituzte. Ez dira preokupatzen desekilibrio bat daualako.*

LO06

Heteroarauak, aurretik aipatu dugun moduan, *gu* bat eta *bestea* sortzen ditu. Hau da *barru* eta *kanpo* bat sortzen ditu, eta hortik ezaugarritzen du bere burua, arauaren barruan eta kanpoan nor/zer dagoen definituz. Kanpoa definitu dezake, heteroaraua botere egitura bat delako, eta hortaz, kanpoko hori definitzeaz gain, nortasunak, praktikak, jarrerak eta adierazpenak onartu edo gaitzetsi ditzake. Gure elkarrizketatuek *bestea* sentitu izanaren adibideak eman dituzte:

*Gure adinean, neska-neska bikote moduan zenbat egongo zian, bi? Pff... Edo bat. Eta zian como "hoiek"... como super borobilduta. Destakatzen zuena, lo exótico.*

**B005**

*Batxilerrean orientatzailearengana joan nintzen, baina lesbiana nintzela esan nionean sentitu nuen ez zuela ulertzen, ez nuen sentitu lagundu zidanik. Gauza exotiko moduan ikusten zuen.*

**BEB002**

Elgoibarren gailentzen den gizontasun eredia ere sartzen da heteroarauaren marko erregulatzailearen barruan. Gizontasun hegemonikoaren hainbat eredu aurkitu daitezke elkarrizketatuen esanetan. Eredu hau dinamiken aldetik deskribatzen da:

*(Nolakoa da gizontasun eredia hemen?) Ba nere ustez, super violento, baina super biolentoa. Danak hemen ikasi dabe, danak ibiltzen dia lanean que si en un taller, que si bestia... Dirutza dakatenak bebai. Ta ba hori, un hombre mítico. Kuadrila de tios. Ta ez dakit... futbola. Yo los asocio farran ibiltzen dianak Malapen. Dena ematen da han.*

**G007**

*(Elgoibarren) Rol diferenteak daude, herri guztietan bezala, [...] Mutiletan da unga-ungismo hortatik. [...] Ba, mutila, kuadrilan futboleant jokatzetan dana, ze normalian Elgoibarren da mutilak futboleant [...].*

**B005**

*Nik uste marika bezela (que) lo tienes mucho mas jodido si estás en un entorno de tios heteros. [...] Kriston matxismua dau: un tio no puede tener pluma, no puede enseñar sus debilidades.*

**L006**

Aurrerago gizentasunaren eta homofobiaren arteko harremanean sakonduko dugun arren, oso interesgarria da ondorengo adibidea, izan ere, heteroarauaren eta gizentasunaren arteko harremanean zer bihurtzen den indarkeriaren hartzaile adierazten du. Hau da, gizentasun hegemonikoari loturiko kokapen soziala betetzen bada, posible bilakatzen da praktika sexual ez heterosexualak izanda ere, indarkeriarik ez jasotzea, betiere, zure zirkulu intimotik harago ez bada jakiten:

*Y yo voy a decir que aquí relaciones sexuales entre (hombres) heteros han tenido así (eskuarekin “asko” adierazten du). Vamos que si nos ponemos a soltar... [...] Entre tios heteros, entre ellos. Pero no de chiquis, en plan... No, no. De comerse la polla. Pero como no son marikas, pues no hay problema.*

**G001**

Eta, aldiz, sexualitatea edozein izanda ere, gizona izanda, bere genero adierazpena gizentasun eredu hegemonikotik aldentuz gero, indarkeriaren hartzaile izango da.

*Ne kurtsoan egon dia bi pertsona que les han machacado horrekin. Eurak inoiz ez dabe esan mutil bat gustatzen zaienik ez ezer, pertsona super normalak (dira). Pero por lo que sea, pluma apur bat gehiago (zuten) eta beti se les ha tachado de maricones.*

**G001**


## Heteroarautik kanpo: zuzenketa eta ukazioa

**H**eteroarauak disidentzia edo arau heterosexualetik at gelditzen den horrekiko hainbat dinamika garatzen ditu herrian, homofobia eta LGBTI+ fobia barruan kokatzen direnak. Homofobia eta LGBTI+fobia heteroarautik ateratzen den ororen aurkako indarkeria izendatzeko erabiltzen diren arren, homofobia hitzak, heteroaraua (sexu-genero sistema dikotomikoaren ezaugarrien zentzuan) ez betetzeagatik jasotzen den indarkeria barnebilduko luke eta, aldiz, LGBTI+ fobia hitzak, sigla bakoitzaren aurkako indarkeria zehatzari egingo lioke erreferentzia; LGBTI+fobia ezin da, era berean, indarkeria bakar baten moduan ulertu, izan ere, hizki bakoitzaren aurka eragiten den indarkeria partikularra da. Halere, homofobia eta LGBTI+fobia kasuak ez dira bereiztuko, herriko dinamika orokorrak ezagutzea baita ikerketa honen helburua.

Zuzenketa eta ukazio dinamikien adibideetan sartu aurretik, elkarrizketatuek homofobiaren inguruan duten ikuspegiaren hainbat adibide ikusiko ditugu.

Zigortzeko eta zuzendua izateko objektua izatearen inguruan honakoa aipatu digu elkarrizketatu batek:

*Nik uste ez dot herrian ez diala zigortzen batere jarrera sexualak homosexualitatearen baitan. O sea, gizonen arteko sexu praktikak*



*ez dira zigortzen. Zigortzen dana da identitate hori, ze sexu praktikak zigortuko bazian ez da ezta bat libratzen. Baina klaro, ya marika izatea, edo [...] bollera izatea, lo que sea... Hori da zigortzen dana herrian nere ustez.*

**G007**

Era berean, indarkeria homofoboa eragiten duenak boterearekin zein harreman duen adierazten du jarraian elkarrizketatu honek:

*Boterearekin (dauka zerikusia indarkeria eragiteak) es que nik uste dot baietz. Ta nik uste dot sobretodo pribilegioak dakan jende hori, konziente dana gainera, porque batzuk konziente dira eta [...] la ejercen (indarkeria), nire ustez hor dirau biolentziak: erabiltzea dakazu botere, pribilegio hori pa hacer daño a otra persona. O no daño, no sé lo que es... pero pa que no sea del todo libre.*

**L006**

Homofobiak duen izaera biolentoaren inguruko adibide argia eman digu honako elkarrizketatuak, eta bidea ireki du, era berean, hurrengo ataletan landuko diren armairuaren eta sexilioaren fenomenoak ulertzeko lehen adreiluak jartzeko. Hain zuzen, homofobia norberaren izatearen aurkako indarkeria dela adierazten du, ukatze bat, eta beste indarkeriekin alderatuz (indarkeria politikoa, kasu), desberdina eta larriagoa dela.

*Itxen ai dia komentaxioak, zuk erabaki dozulako zuk nahi dozuna itxeko zure sexualitatearekin. Netzako desberdina da komentaxioa itxea X gauzogatik, eta zerbait esaten diate (eta) bale, berdin dozta, baina ya netzako desberdina da honegatxik itxea. Ze itxen dotzuna itxen dotzu zuk pausu batzuk emategatik dudan jartzen*

*diozulako berai dana, eta juten da miña itxea pertsonalki zuri eta zure inguru guztiari.*

**L003**

## **A)ZUZENKETA**

lkerketa honetan, bi dinamika nagusi topatu dira. Lehen dinamika, zuzenketaren baitan sartzen dugu. Zuzenketaren bidez, esparru hegemonikotik at aritzea agerikoa egiten da, eta helburua, jendea berriz ere araura erakartzea da. Bide beretik, zuzenketaren ariketan, zuzentzailea arauaren barnean kokatzen da, eta bere posizioa berrindartzen du. Dinamika horren baitan, 3 ekintza zehatz topatu ditugu: irainak, seinalatzeak eta mehatxua.

### **Irainak**

Irainen barruan, oraindik ohikoena “maricón” hitza izaten da. Aurretik ere ikusi den moduan, gizontasun eredu zehatz batetik at kokatzen den hori seinalatzeko erabiltzen da gehiago, sexu praktika homosexualak dituen gizona seinalatzeko baino. Era berean, “maricón” hitzarekin gizon batek zer ez duen izan behar eta, hortaz, negatiboki bada ere, zer izan behar duen adierazten da: gizonak ez du femeninoa izan behar. Irain hauek egiten dituztenak, haur mutilak eta gizon gazteak izan ohi dira batez ere gure elkarrizketatuek adierazten dutenez.

*Indarkeria berbala, [...] deitzea “maricón” edo horrelako gauzak. [...] Batek bullying-a jasan zuen, ez zuen esan gay zela ez ezer, baina [...] jendeak ikusten zuen mota batekoa (zela) eta esaten zioten “maricón” eta ez dakit zer.*

**BEBO02**

*Ni nere bikotearekin ibili naizenean hamen Elgoibarren beti jaso ditzugu begiradak, txilixuak kaletikan “jmaricones!” eta nik ez nion inoiz garrantzirik eman. Ze ume txikitxuak izan dira gainera, baina mutil txiki-txikiak, dezente txikiak.*

**G007**

*Nik entzun ditutenak dia gazteak, o sea, ni baña nagusiagoak dira baña gazteak dira oraindiokan. [...] Gizonak (dira), nik emakumeak ez dot (entzun). Baña gizonak, bai entzun ditut komentaxioak ni nauan jendiakin de “vaya maricón”, “vaya tal”, “vaya cual”; ez neri, ze obviamente nei esateiatena ya sa’ acabau, baña igual pertsona bat pasau ta entzun komentaxioa, bai entzun dot.*

**G001**

Era berean, “bollera” hitzaren erabilerak indarrean jarraitzen duela topatu dugu. Egunerokotasunean oso zabalduta dago eta emakumeen genero-adierazpenaren araua hausten duena iraintzeko funtzionatzen ez duen arren, desberdintasuna markatzeko balio du oraindik:

*7-8 urterekin gogoratzen ditut iruzkinak homosexualitatearen inguruan, identitate moduan ulertuta. Helduek zituzten aurreiritzi eta iritziak: “hau da [homosexualitatea] dena, eta gainera txarra da”. Nire gurasoek bromak eta horrela egiten zituzten eta lagun baten gurasoek ez zuten onartzen. Hortik aurrera gogoratzen dut ere jendeak galdetzen zidala “zu bollera zera?” edo horrelako gauzak.*

**BEB002**

## Seinalamenduak

Seinalatzerakoan, gu eta bestearen arteko desberdinketa egiten da. Aurretik, exotizazio adibide batzuk ikusi dira. Oraingo honetan, gizon izanda, genero-adierazpen femeninoa izateagatik edo emakumea izanda, genero-adierazpen maskulinoa izateagatik eragiten diren seinalamenduen adibideak ikusiko ditugu:

*Beti egon da (genero adierazpenagatik) jendia que se le ha señalado como el marica del pueblo.*

**G007**

*(Mutil bat) Euskal dantzara (apuntatu zitekeen). Balletera mutilak? Ez, ez, ez... Bueno...! Hori ya zan como fijación mutil horrekiko. "Mutil hori nagusitan zer izango da, gay?". Hori zan.*

**B005**

*Gogoratzen ditut baita hitz nahiko zatarrak neska maskulino batenganakoak, ni baino 5 urte gazteagoa izango zen. Horiek jende zis-heteroak egindako iruzkinak ziren. Baina gero, nire itxuragatik, pare bat LGB pertsonak esan zidaten ez nuela inoiz bikoterik topatuko "mutila ematen nuelako" eta "itsusia zelako" (neraman estiloa). (Gero ere bai) ume txikiak begira eta nire atzetik... Eta lagun batek esan zidan "nire amak galdetu dit ea lesbiana zaren" eta gurasoei ez zitzaizela nire itxura gustatzen lesbiana ematen nuelako.*

**BE002**

## Mehatxuak

Indarkeria fisikorik izan dela jaso ez dugun arren, elkarrizketatu baten hitzetatik eratoritzen da, iruditeria kolektiboan oraindik homosexuala jipoigarria izatearen ideiak indarrean dirauela. Ondorengo adibidean, indarkeria kulturalaren baitan sartzen den iruzkin baten bitartez, LGBTI+ pertsonen, eta kasu honetan, “marika” baten izatea mugatzeko ariketa egiten da:

*Gertatu zitzaiten Malapen, farran urtetzen dan taberna bat, jarrita atsalde normal batean, vamos, kafe bat hartzen; eta etorri zitzaiten 26 urte inguruko tipo bat, típico zure lagunekin ibiltzen dala, (eta) jartzen da parean eta esaten “antes aquí cuando entraba gente como tu se les pegaba”. Ni aluzinatua gelditu nintzan. Gainera, ertzaina izan bida, bira ze ondo.*

G007

## B)UKAZIOA:

Bigarren dinamika ukazioarekin lotzen da, hau da, nortasun, praktika eta adierazpen disidenteen izatea bera ukatzearekin; dinamika honen baitan jaso diren adibideek sexualizatzearekin, baztertzearekin eta bakartzearekin eta ikusezin izatearekin dute zerikusia.

## Sexualizazioa

Sexualizazio matxista emakume trans eta lesbianen aurkako indarkeria da. Emakume transen kasuan, haien nortasun eta gorputzak fetitxizatu eta exotizatu egiten dira; eta emakume lesbianen kasuan, berriz, haien lesbianismoa ukatu egiten

da, mendebaldeko sexualitatearen iruditeria nagusiari jarraikiz, ulertzen baita, lesbianen praktika sexualak gizon-zis heterosexualen desira sexuala asetzeko direla.

*Porque nik entzun dot “vamos a hacer un trio”. “Te reviento la cara” izan zan la respuesta. Porque claro, ya zan bosgarrena. Y me salió lo peor de dentro.*

L003

## Ikusezintasuna

Ikusezintasunaren bitartez, genero adierazpen ez normatiboak ezkutura igarotzen dira. Dinamika hau gauzatzeko, beharrezkoa da genero adierazpen ez normatiboak, edo beste era batera esanda, heteroarautik ateratzen diren adierazpenak ezkutuan egon behar direlako diskurtsoak garatzea, horien artean, plumofobiarena. Eta hurrengo adibideetan ikusiko dugun moduan, diskurtso hori ez da soilik heteroarauaren barruan daudenen aldetik etortzen.

*Nik askotan komentatu dot lagunekin, ni normal nuanean jantzita, o sea, txandalakin jantzita edo bakero batzuk, [...] lagunek beti esaten didate “daude homosexual batzuk pluma gehixago dakatela”, ta hitz egiteko moduan-ta, baña nei lagunak beti esaten dudate “zure ahotsa ez da tipo... afeminado moduan”.*

G001

*Mutil bisexual batek ere mutil femeninoei buruz egindako iruzkinak gogoratzen ditut, “lumafobia” deritzona. (Esan zuen) ez zitzaiola gustatzen hain “ikusgarriak” izatea beren izaerarekin,*

*oso zaratatsuak direla, eta abar... Eta ez zela inoiz egongo gizon femenino batekin. Honek guztiak nahiko min eman zidan.*

**BEB002**

Adibiderik topatu ez dugun arren, ikusezintasunaren baitan luze eta zabal hitz egin daiteke genero ikusegiari so egiten badiogu. Gizon gayak izan dira LGBTI+ komunitate eta kolektiboan ikusegaitasuna eskuratu duten ia bakarrak, jakinik ere, sexu-askapenaren mugimenduan mugarri izan ziren 1969ko ekainaren 28ko istiluak emakume trans beltz batek eta txikano batek hasi zituztela New Yorkeko Stonewall tabernaren aurrean. Hau diogu, ikusegaitasunaren dinamikak sexu-disidentziaren barruan ere gehienak ikusezintasunean mantentzen dituelako gaur gaurkoz. Horren adibide moduan ulertzen dugu, adibidez, LGBTI+ pertsona migratuak topatu ez izana edo trans pertsonen parte hartu nahi ez izana.

## Bazterketa

Genero adierazpenagatik, nortasunagatik edo desiragatik baztertzea da ukazioaren beste dinamiketako bat. Hiru adibide desberdin topatu ditugu. Batetik, behin desiraren orientazioa ezagututa, baztertua izatearena:

*Batxiko lagun bat nerekin hasi zana, bere ama oso laguna zan neria, o sea, oso laguna neria, kaletikan gelditzen ta hola. Enteratu zanian ni gay nintzala, kaletikan ezta begiratu ezta... ¿Sabes? Como...*

**G001**

Beste adibide bat, gizontasun hegemonikoaren markoan ez sartzegatik baztertua izan eta nesken taldean lekua izan duenarena da:

*Nik ustet mutilak bai matxakatu ziotela orientazioarengatik; hori zan aipatzen zana. Ze berak gurekin ite zituen brotxeak, gurekin juergan... Mutilan kuadrilan ez zen onartua, gurean zeon onartua.*

**BOO5**

Azkenik, norberaren identitateagatik, adierazpenagatik eta desiraren orientazioagatik behin eta berriro baztertua izan denaren adibidea topatu dugu. Kasu horretan, zalantzan jartzeak eta norberaren eragiletzagatik esaten dena ukatzeak sortzen duen bazterketaren adibidea topatuko dugu, bai eta bazterketak eragin dezakeen ondorio latzenaren adibidea ere:


*Hasiera batean pare bat ikaskideri bakarrik kontatu nien bisexuala nintzela eta... Edo ez zuten sinesten edo esaten zuten atentzioa deitzeko zela. Gero lesbiana nintzenean ezinezkoa zela mutilak ez gustatzea, mundu guztia zela “apur bat” bisexuala, eta abar. Beti zeukaten zerbait nire identitatea deslegitimatzeko. [...] Batxiko urteak gogoratzen ditut bakardadeaz eta jende askok, ba... ez dakit, bromak-eta egiten zituzten. Baina gehien gogoratzen dudana da, hori, bakardadea. Batxilerra izan zen okerrena. Ez bakarrik LGBTfobiagatik, baina horrek eragina izan zuen. Lagunak topatu nituen sare sozialen bidez eta horrek asko lagundu ninduen, baina urrutikoak ziren. Okerrera joaten hasi nintzen eta ez neukan inor Elgoibarren segurtasunik ematen zidanik honi buruz berba egiteko, orduan egun batean nire buruaz*

*beste egiten saiatu nintzen. Bistakoa denez, ez nuen lortu, [...] hori eta gero oso aste txarra pasatu nuen, batez ere fisikoki, eta ez nion inori kontatu kanpoko lagun bati izan ezik.*

**BEB002**

Amaitzeko, ohar bat. Lehenengo eta bigarren dinamiketan generoaren araberako irakurketa egingo bagenu, ohartuko ginateke, gizon moduan irakurtzen direnak direla gehiago zuzenketa dinamikak jasotzen dituztenak, eta emakume moduan irakurriak direnak eta genero nortasun ez normatiboak dituzten pertsonenak, aldiz, ukaziozkoak. Hau da, badirudi, generoaren arabera banatzen diren elementu sinbolikoei so egiten badiegu, bera osatzen duten elementu sinbolikoen ondorioz (protagonismoa eta subjektu izaera, besteak beste) gizontasunetik ateratzen denari ageriko zigorrak jartzen zaizkiola, baina era berean, dinamika honek subjektu oso izateko aukera zabaltzen du, hau da, zuzenketa onartzen baduzu, berriz ere gutar izatera itzuli zaitezke. Ukaziozko dinamikek, aldiz, hor dute hasiera eta bukaera, hau da, zu ez zara / ezin zara izan esan nahi da dinamika horrekin, eta ez du egoera hori konpontzeko edo hortik ateratzeko aukerarik uzten.

**HETEROARAUAREN INDARRA ETA HONEN ADIERAZPENA  
INDARKERIA HOMOFOBOAN ETA LGBTI+ FOBOAN**



# INDARKERIAREN ONDORIOAK: ARMAIRUA, SEXILIOAREN ETA BIZIRAUPEN ESTRATEGIEN ARTEAN DANTZAN

Elgoibarren LGBTI+ pertsonak bizi dituzten egoerak jaso ostean, orain arte ikusi dugun atalean, argi eta garbi ondorioztatu daiteke LGBTI+ pertsonak indarkeria bizi dutela (amaierako atalean, LGBTI+ pertsonak hainbat arlo eta espaziotan bizi dituzten egoerei buruzko sintesi gehiago ikus daitezke). Indarkeria horrek, hainbat ondorio ditu Elgoibarko LGBTI+ pertsonengan.

---



Ilkerketan zehar topatu ditugun LGBTI+fobiaren eta homofobiaren ondorioak, hiru multzo handitan sailkatu ditugu. Batetik, armairua; bestetik, sexilioa edo nahitaezko migrazioa; eta, azkenik, biziraupen estrategia moduan identifikatu direnak.

## **Armairua**

Armairua, soilik LGBTI+ pertsonak bizi duten fenomeno bat da. Batzuek leku moduan definitzen dute; beste batzuek, indar hertsatzaile moduan ulertzen dute; besteek ziurtasun espazio moduan. Ulerkerak ulerkera, diferentzian sortzen da armairua, dagoen egitura sozialak ematen dituen aukeren artetik (genero-nortasun, desiraren orientazio, gorputz...) kanpoan kokatzeak, bazterrera mugatzeak. Diferentzia da, bai, eta askok biolentzia moduan ulertzen dute. Izan ere, heteroaraua egongo ez balitz, ez litzateke armairurik egongo, edo ez, behintzat, LGBTI+ pertsonen zuzenduriko armairua. Baina, era berean, armairua diferentzia eta bazterketa moduan definitu badaiteke ere, bakoitzak harreman zehatz bat eraikitzen du armairuarekin, are gehiago, espazio segurua dela sentitu arte. Horregatik guztiagatik, esparru hertsagarri moduan definituta ere, armairu barruan egotea pertsona batzuentzat biziraupen esparrua ere izan da, norbere prozesua egin eta behin ziur egonda atzean uzteko esparrua, alegia. Halere, batzuek ez dute armairu barruan egoteko aukerarik ere izan, izan ere, haien genero adierazpenagatik behin eta berriro izan dira seinalatuak.

Elementu guzti hauen baitan mugitzen da, hortaz, armairua. Elgoibarren, armairua egon badago, baita guztiz indarrean egon ere. Elkarriketatuta guztiek egin digute armairuaren

erradiografia eta berau osatzen duen dinamikaren errelatua.

### 1. Egitura

Heteroarauaren egiturak sortzen duen patroï edo markotik ateratzen dena da armairugarri, esan nahi da, heteroarautik ateratzen den oro, armairuan sartzen dela.

*Nik armairua ikusten dut gehio marko bat bezala, jarrerak, diskurtso bat, ta ni bai asko bizi izan nintzala hor barruan. [...] Sartu nintzan fondoraino. Eta behin erabaki nuela armairu hortatik urtetzea in nabana da sartu beste armairu baten, izan zala politikoan azeptazio hori lortzeko, [...] diskurtso batetikan, jarrera batzuekin. Era nik iten nuan gauza bakarra zan erreproduzitu ¿la persona mas homófoba del mundo que puedes conocer? Ni nintzan.*

**G007**

*Patroï bat egotea super establecidoa (-ren ondorio da armairua). Eta ez ezagutzeana (beste aukera batzuk).*

**B005**

*Nik ikusten det bi sisteman arteko talka bezela. Bat guztiz nagusia dana eta azkenean minoritario horiek armairu deitzen diozula.*

**G007**

*Armairua, pff.. Es una construcción [...] una cosa que nos han metido en la cabeza. [...] Nik uste dot porque gizartea do botere harremanen arabera (antolatua) eta orduan, uno tiene que tener el poder y el otro tiene que ser el sumido. [...] “Entre los hombres y mujeres que no entran dentro de esa normalidad, y todo lo que sale de ahí vamos a meterlo en un sitio”, pues armairura.*

**L006**

## 2. Definizioa

Aipatu den moduan, ulerkerak desberdinak ditu Elgoibarko LGBTI+ pertsonen artean armairuak, indarkeriaren eta, kasu batzuetan, babesgunearen artean mugitzen denak. Atal honetan, armairua definitzeko eman dituzten adierak jaso ditugu:

*Neretzaiko bai da biolentzia armairua eta armairu mota asko daude. [...] Azkenean, nik ustet dena bezela, hasiera batean eta gizartearen naturalidade batekin ikusiko bazan dana eta zuk edozein modutan pronuntziatzeko aukera izango bazenu, bai politikamente edo sexuala, zaren bezala izateko erraztasuna izango bazenu, ez zan existituko armairurikan. Azkenean da como lastre bat dakazula, armaixua, zu zean erabakitzeke edo prozesu interno bat emateke tarte hori.*

**G009**

*Nik armairua kontsideratzen dudana da, hori, askatasun falta. Hori hor baldin badau, azkenean da ezkutuan egote bat gai konkretu batekiko. Da zu zer zare baina ezkutuan egotea. Sentsaziño hori ezkutuan egon behar zarela ondorio batengatik eta da zu bizi zaren tokian bizita, jendarte horretan libreki askatasun baten barruan bizi bazara, edo espresatzen bazara, sentitzen badozu... ostiak etorriko zaizkizu alde batetik ez bada bestetik, hau da, fokoan egongo zarela.*

**L003**

*Epel zauz... Da refugio bat. Gero refugioa lagatzea edo ez lagatzea beste asunto bat da. Defentsa bat edo ezkutalekua, bi gauza izan daitezke.*

**G011**

*Zure burua ulertzen, onartzen eta deskubritzen (uzten) ez dizun barrera.*

**B005**

*Jendea ikusezinarazteko (leku bat).*

**BEB002**

*Ixkutatzeko toki bat. Nik beti jakin izan dot zein naizen baña kostatu zait pixkat gehiago armairutik ateatzea.*

**G001**

### **3. Atera/Sartu**

Definizioak definizio, armairuarekin harreman desberdina izan dute elkarrizketatuek. Halere, behin armairua identifikatuta, esparru honekin harremana zehazteko bideak egin dituzte armairu barrua ezagutu dutenek (ateratzeko prozesua erabaki, unearen arabera ateratzea erabaki...). Halere, arestian aipatu moduan, batzuk betidanik egon dira armairuaren gerizperik gabe, homofobia eta LGBTI+ fobia zuzena jasotzen:

*Nire itxuragatik, pare bat LGB pertsonak esan zidaten ez nuela inoiz bikoterik topatuko “mutila ematen nuelako”. [...] Nire janzkera aldatu nuenean, ba hori, nire lagun batek esan zidan “nire amak galdetu dit ea lesbiana zaren” ni ikusita bakarrik; orduan, esan nahi dut, armairuan nago? Ba bai eta ez... Nire gurasoei esan nienerako bazekiten... Ni ikusita edo.*

**BEB002**

*Es que neretzat inoiz ez dot pentsa existitu danik armairu bat porque ya txikitatik pixkat he dau la nota un poco, o yo he pensado*

*que he dau la nota: janzteko modua, gustua... beti izan da como nesken taldetik pixkat la rara.*

**L006**

Prozesu moduan azaldu dute elkarrizketatu batzuek armairuarekiko eta berau uzteko harremana, bai eta armairua uzteko ariketak zein bizipen sortzen dituen:

*Establezitutakoaren kontra zoaz eta horri aurre egin behar diozu eta datozkizun ondorioei. Zu, konturatzen zarenetikan pauso hori ematen dozun arte barruan min asko dituzu, ez dakizulako zure familiak onartuko duen, lagunek zer esango dizuten, dudak dituzu... Zure inguru guztiak zurekiko duten irudia apurtzen dozu.*

**L003**

*Nola begiratuko nauten, horrek beldur handia sortzen dit. Eta badakit hori nere lanketa dela. [...] Ez nago prest.*

**B008**

*Bai bai, zan guztiz babes bat. Irtetzen naiz handikan. "Bale" denak. Danak ondo hartu zuten egia esan. Baina bai, ez izateko hori como lo primero que se viera, nere nortasuna horren inguruan sortu beharrian, sortu naban beste diskurtso baten baitan (diskurtso politiko erreakzionarioen baitan).*

**G007**

*Armaixuan gu ya konturatzen garenerako edo konziente generako armaixuan gaude. Prozesua da urten behar zarela momentu horretan. Eta neretzat hor indarkeria badago, ze azkenean hasten zara armarixua pixkat zabaltzen, atea zabaltzen eta markajeak,*

*[...] herriko esanak, estereotipo pila bat zure gainean. Hor kriston biolentzia dau, eta hortikan klaro norberak zelan bizi daban, batzuentzat igual askoz mingarriagoa da hori dana onartu eta ez konponbiderik ematea horri, urtetzea baino. [...] Nik amari esan nionean oso gaizki hartu zaban era sentitu nintzan... Hiru egun egon nintzan negarrez. Eta azkenean pentsatzen dozu... Ze gainera sentitzen zera errudun amari mina eman diozulako.*

**G010**

LGBTI+ pertsona izanda ere, armairutik ateratzeko beharra ez izatearen inguruan mintzatu da elkarrizketatuetako bat. Pertsona heterosexualek egin behar ez duten moduan, berak ere ez duela zertan atera adieraziz. Bide beretik, beste elkarrizketatu batek haien burua armairu barruan mantentzen duten eta betidanik ezagutzen duen bikote baten adibidea ematen du. Beste baten kasuan, aldiz, armairutik ateratzea desiraren orientazioa era esplizituan aipatu gabe egin zuela adierazten du.

*Nik [...] galdetzen badia ba esaten dot, si surge la situación. Bestela ez dakat esan beharrik... Ez dot sentitzen beharra esateko, ba hetero batek sentitzen ez duen bezela.*

**G011**

*Nere tia (eta bere bikotea). Bizi guztia Elgoibarkuak, bizi guztia batera, herri guztiak badaki batera daudela, oportetara batera duaz... Inoiz bizitzan ez dabe esan bikote dianik, inoiz ez dia etorri bazkari/afari batetara batera... Adinak asko jokatzen du hor egia esan.*

**G007**

*Nere salida del armario ez zen izan de “soy gay” baizik eta de “bikotea dakat”.*

**G009**

Armairuaren dinamikaren ingurukoak ixteko, azken elementu adierazgarri bat aipatu dute elkarrizketatuek. Behin armairua uzteko hautua hartuta ere, armairua sartzeko-irteteko esparrua dela haietako askorentzat, hain zuzen. Lehenengo kasuan, heterosexualitate presuntzioagatik ulertu daiteke; bigarren kasuan, heterosexualitate presuntzioa indarkeria LGBTI+fobia prebenitzeko elementu moduan.

*Nik uste dut armairua agertzen joaten dela segun eta non gauden, ateratzen ahal zara armairutik baina berdin du, porque bazoaz beste toki batera eta zaude armairuan berriro.*


**B008**

*Ni segun eta nora biajutzen doten kontuz zer erakusten doten eta nola erakusten doten. Beldur hori badaukat.*

**L003**

## Sexilioa

Sexilioa, LGBTI+ pertsonen bizi duten nahitaezko migrazio moduan ulertu daiteke. Era kontziente zein inkontzientean ematen den fenomeno da, baina sexilioa ematen den kasu guztietan, kanpora joateak eraldaketa prozesu bat dakar pertsona horrentzat. Behin kanpora joanda, LGBTI+ pertsonen herrian bizi izandako indarkeriazko, ikusezintasunezko, artikulaziorik gabeko... dinamiken kontzientzia hartzen dute eta beste leku batetik nortasuna sortzeko aukerak



ere topatzen dituzte. Kasu batzuetan, beste begirada eta indar batekin, eraikitako nortasun horretatik, herrira itzultzeko bidea hartzen da, baina, behin herria atzean utzi ostean, gertukoekin harremana mantentzeko edo zaintzeko bisitetarako itzultzea izaten da ohikoena. Oraingo atal honetan, sexilioaren arrazoietan, egindako bidaietan eta eraldaketarako proposamenetan jarriko dugu fokua.

### **Sexilietzearen arrazoiez**

Elkarrizketatuen erantzunetatik ondorioztatzen dena da, sexilioa LGBTI+ pertsonen bizitza bizigarriak izateko baldintzak ez izatearen ondorioa dela. Aipatu diren elementuen artean, honakoak topatzen dira: biziraupen ariketa bat dela, norbere burua aurkitzeko beharrezkoa dela eta herriaren izaerak bultzatzen duela horretara (norbere bizitza herrian ezin egin izatea, itomena izatea, herria itxia izatea eta aisialdirako aukera gutxi izatea).

*Bueno, esan nun, voy a cambiar de pagina, eta nola inglesa ikastera eta norabait deskubritzeko, libre izateko, zer naiz (eta) zer nahi det nere bizitzan [...] ni zein naiz. Eta horrek balio izan zidan gero ateratzeko armairutikan de una forma normal y consciente de “erabaki bat hartu det, ni hau naiz” eta yasta.*

**G009**

*Ni nere kasuan izan zan oso gauza... neretzat superbibentzia izan zan. Ez zen gauza konziente bat izan. [...] Baina nere bizitza salbatu dia horrek, nere ustez nere ahalduntzea asko kostatuko jatan Bilbon egin doten moduan.*

**G010**

*Tristea iruditzen zait [...]. Zure bizitza zure herrian ezin egin ahal izatea oso tristea iruditzen zait.*

**BE002**

*Badaude leku askoz hobiak bizitzeko. [...] Zarautz da herri bat... [...] kuadrillak irikiagoak dira, jendea irikiagoa da, o sea, bere bizitzan jendia jaso dute, Elgoibarren ez. Elgoibarren jendea jun da, etorri ez. [...] Elgoibartar moduan ez gea irikiak.*

**B005**

*A ver, ni oso pozik bizi naiz Elgoibarren eta oso gustura baña hemen ez dakau ezer itxeko. Ni egon naiz Madrilen en una discoteca de gays eta nada que ver, da libertad absoluta. Hemen ere badaukat, bana han komoduago sentitzen naiz.*

**G001**

*Nik sexilioa ulertzen dot jende bat non itota dagon beren tokietan. Hirietara (joaten dira) askatasuna bilatzera eta nik uste dot hori superbibentzirako tresna bat (dela) eta ziurrenik hori ekartzen du [...] norbere ezagutza, norberan onarpena, norberan ahalduntzea azkenean.*

**L003**

### **Sexiliatze prozesua**

Sexiliatze prozesuan, aurreko markoaren minak eta babesak atzean uzten dira, eta prozesu zaila izan daitekeen arren, hainbat aukera zabaltzen dira ere: norbere identitatean barneratutako fobiak baztertzeko, zerotik hasteko aukera, nortasuna zabaltzekoa eta galderak egitekoa.

*Bilbora joan nintzenean, konturatu nintzan beste gauza pila batez. Adibidez, zelako plumofobia nakan barrun sartuta eta ez nakan estereorizatua, ez nintzan konziente horretaz. Eta nere desioa deseraiki zala eta milla gauza horren inguruan. Ta gauza horrek pentsatzen dot bakarrik in ahal izan dotela Bilbora jun nintzalako. [...] Gero, unibersidadea ere, salto hori klabea da sexiliorako. Normalean, jende asko juten da hiri batera edo karrera ikasi duen hiri horretan gelditzen da. Nire kasuan ere hola izan zan.*

**G010**

*Nik holako bidaia bai ina dakat [...]. Azkenean da tabula rasa batetik hastea pixkat, eta ez zen izan sexilioa precisamente. Nik uste denok egiten dugula momenturen batean holako eskapada bat. Nahi dezu jakin eguneroko ingurua ez dagoenean, apoyua ez dagoen zein zeran, zelan zeran eta zelan resolbituko zu... Azkenean bidai horiek holakok dira, autoezagutza, por sexo o por...*

**G011**

*Ni Dublinea joan nintzen eta hiru urte egon nintzan han eta eskerrak. Ze hor zabaldu nuen nire nortasuna pila bat.*

**B008**

*Es que beti izan naiz pertsona iriki bat baña Madrilera jun nintzan arte ez nintzan galderarik egin eta handik ikasita etorri nintzan.*

**G001**

### **Sexilioaren fenomenoari etena?**

Herri guztietan eman izan da migrazioa, kanpora zein barrura. Kontua da, zer egin daitekeen migratzeko arrazoia LGBTI+

pertsona moduan bizitza bizigarri bat sortu ezin izatea ez izateko. Galdera horren bueltan, hainbat hausnarketa elkarbanatu dituzte elkarrizketatuek, ondoren jaso daitekeenez. Batetik, herriak bere tamainagatik eskaini ezingo dituen aukerak muga moduan ikusten dira; bestetik, sexilioaren fenomenoaren eteteko, ikusgaitasuna eta artikulazioa proposatzen dira.

*Es que uste dot ezingo zala ezer aldatu. Hemen Elgoibarren egingo bazuten una discoteca de gays que no tienen nada que ver ez zan iguala izango. Hori izan behar da Madrilen eta yasta. Mundo de la moda iguala: hemen ez dago ezer itxeko.*

**G001**

*(Sexilioa ez emateko) ez dakit, igual espazio batzuk, herri mugimendu gehiago, bisibilizazio gehiago...*

**L006**

*(Sexilioa) Nik uste dot dala trankilidade faltsu bat. [...] Benetako askatasun bat da hiri baten non izan ahal zea zaren moduan zeatxikan jendeak ez zaitu ezagutzen eta orduan komunitate oso konkretu batera zoaz no LGBTI jendia dagoen batez ere eta hor barruan sartzen zara? Edo zu aske zara zure herrixan plantatzen zeanian zaren moduan? [...] Behin pasatzen dozula fase hori esponitzeana, epe hori eta gero hasten zea eraikitzen gauzak eta hori herria askatzeko modu bat da. Atzekoek berriz'e berdina ez bizitzeko modu bat. Orduan sakrifikatzen dot nire "komodidadia". Zilegi da jutea, denak jun gara, baina aldi berean ondo itxen deu denak juten? Danak? Gehienak? Nik erreferenteak iez banitu izan berdin ateako nintzan?*

**L003**

## Egunerokorako biziraupen estrategia

Armairua eta sexilioa indarkeria zein biziraupen estrategia moduan begiratuta ere, badaude bi fenomeno horietatik kanpo topatu ditugun bestelako biziraupen estrategiak ere. Egunerokoan bizirautean lagundu dezaketen estrategiak dira.

### ***Erasoari buelta eman ez erantzutea***

Estrategia honen muinean, queer mugimenduak aspaldidanik erabili izan duen estrategia dago: arrarotasunaren harrotasuna erakustea. Hau da, iraintzen bazaituzte LGBTI+ pertsona izateagatik, iraina zure egitea da adibide klasikoa, eraso eragiten duenaren hitza desaktibatzeke helburuarekin. Adibidean, freak harrotasuna topatuko badugu ere, eskema bera jarraitzen du.

*Frikixa da berezia zeala ta bateon batentzat txarra dela eta horrexegatik negatibizatzen dela. Baina friki deitzen dizutenean hartu biezu, buelta hori eman eta berari aurpegira eman hitzak: "super friki y contento de ser friki".*

**G011**

### ***Erasoei umoretik erantzutea***

Eraso bat ematen denean (iruzkin LGBTI+fobo bat, kasu), umorea beste tresna baliagarri baten moduan ikusi du

elkarrizketatuetako batek. Izan ere, aurreko strategiaren bide beretik, eraso eragin duen pertsona desaktibatu eta agerian jartzen da.

*Nei pasa izan jata tabernan, nere tabernan lanean: “¿Tienes... Eres maricón?”. Gero, jakin behar da erantzuten... “Si, si. Pero tranquilo, que no me gustas”. Kortau itxen dozu tipoa. Azkenian guk ze jarrera ipintzen dogun horrek markatzen du besteak ze jarrera hartuko dun zurekin. [...] Bestieri bromak al diozu bueltan eman haserretu gabe. Hortarako beti ez da erreza eta batzuetan toca fibra sensible, haserretzen zara. Baina ostia, guk ere ikasi behar dogu frikismo hori onartzen eta gure posizioa markatzen. Ez da harro nau, da ni naiz...*

**G011**

### **Unean-unean ahal den moduan ateratzea erasotik, epairik gabe**

Eraso bat bizi denean, unean unean eta ahal den moduan erantzuteko zilegitasuna sentitzearekin lotzen da estrategia hau. Hau da, eraso baten aurrean erantzuteko era ez epaitzearen alde egiten du estrategia honek, ulertuz, egoerari umoretik buelta ematea zein beste eraso batekin erantzutea, besteak beste, zilegi dela.

*(Eraso baten aurrean) erantzun dezake buelta ematen edo beste eraso batekin. Baina hori bere erabakixa da. Edo momentuan in al dozuna, ze igual eraso bat sorpresaz harrapatzen bazaitxu... Ipintzea ardua gainea pertsona bakoitza urten behar dela ondo eraso batetikan... Ba beno, atekoa al daban bezala.*

**G010**

### ***Pedagogia egitea eta baita, pedagogia egiteaz nekatuta, mugak jartzea ere***

Pedagogia egitea ere izan daiteke estrategietako bat, hartara, jendearen pentsamendua aldatuz herri askeago bat sortzeko. Halere, pedagogia egitearen ardura askotan LGBTI+ pertsonena delako ideiarekin apurtzeko proposamena ere egiten da. Hau da, heteroarautik kanpo gelditzearen ardura LGBTI+ pertsonena delako ideiarekin hautsi egin beharko litzakeela aipatzen du elkarrizketatuetako batek, zilegitasuna eman ez eraso LGBTI+foboei mugak jarriz erantzuteari.

*Nik uste det jendiak (LGBTI+ pertsonak) uste duela pedagogia egin behar dutela aurrekoarekin bera izan delako normarekin apurtu duena eta normalizatzen ari gara gauza asko. [...] Hasieran, igual pentsatzen naban pertsona hori aldatu nezakeela, segun zela eta [...] ardura nere gainean jartzen naban, (pentsatuz) segun eta zelan erantzuten neban pertsona horri pentsatzea in ahal notzala. Baina ya... es que jende hori [...] ez dakat zertan nik indibidualki aldatu. Orduan, no te voy a pasar ni una.*

**L003**

### ***Jendearen iritzi eta epaiei aurre eginez, ez ezkutatzea***

Beste biziraupen estrategia baten moduan identifikatu dena da, heteroaraua hausteagatik herrian egon daitezkeen jarrera, iritzi eta epaiei aurre eginez, norbera ikusgarri egitea, hots, ez ezkutatzea.

*Askotan, jantzita noan moduan, jendiak jakitzen do bakarrik (ni ikustearekin). Ez dakat problemarik (horrela) jazteko. Ikasi dot horri buruz, gustatzen jata... Orduan ni ez naiz ezkututzen. Orduan, poltsak eramaten ditut, rosaz jazten naiz... O sea ez dakat problemarikan.*

**G001**

### **Politizatzea**

Bizirauteko azken estrategietako bat da bizi den desberdinkeriaren, betetasunaren eta desberdin izate horregatik bizitako indarkeriaren aurrean politizatzea. Norberaren bizipenak ulertzen lagunduko duen marko politiko bat ematea, alegia.

*Politizau bidea asko. [...] Nik hori argi dakat. Oso ondo egongo zan egotia espazio bat edo o sekzio bat un algo de literatura queer, seria estupendo. Herrixan eukitzea jutia eta taka. Hor irakurketa batzuk eukitzia.*

**G007**

# LGBTI+ PERTSONEN BIZIGARRI- TASUNA

Herria bizigarriago egin duten elementuei egingo diegu so atal honetan. Besteak beste, LGBTI+ pertsonen onarpenaren inguruan dagoen pertzepzioari, Elgoibarren LGBTI+ pertsonak izan dituzten erreferenteei eta LGBTI+ pertsonen artikulazioari. Hiru elementu horiek, pertsonen bizigarritasunean berebiziko garrantzia dute:

- 1) onarpenak, herrian bizitzeko ateak zabaltzen dituelako;
- 2)erreferenteeek LGBTI+ pertsonak islatu ahal izateko ispiluak diren heinean, LGBTI+ pertsona izan ahal izateko baldintza sortzen duelako eta
- 3)artikulazioa, LGBTI+ pertsonen beharrak, nahiak eta desirak garatzeko esparru delako.

---



## Onarpena

### Onarpenaren pertzepzioa

**G**aur egungo LGBTI+ pertsonen bizigarritasunaren inguruan galdetuta, elkarrizketatuek balorazio positiboa egiten dute. LGBTI+ errealitatea gero eta normalizatuagoa sumatzen dute, eta hori adierazten duen hainbat adierazle ematen dituzte: sare sozial digitaletan dagoen ikusgaitasuna, herrian egiten diren ekimenak (elkarretaratzeak zein manifestazioak) edo komertzioetan topatu daitekeen aukera aniztasuna.

*Bai, ikusi dut aldaketa. Adibidez, [...] antolatzen diren ekintzetan eta horrela, LGBT pertsonak kontuan hartzen dira, horren inguruko manifestazioak-edo egin ziren, adibidez, ekainak 28an eta jaietan ere kontuan hartzen da (udaletxetik baino, gazteek antolatutako ekintzetan) eta horrela...*

**BE002**

*Nik uste dot [...] ni gaztea nintzanean ez zala hain normala ikustea ba ni oaintxe juten naien moduan jantzita, edo mutilak poltzuekin edo mutilak takoiekin. Orduan nik uste hortik aldatu dala. [...] Ni (lehen) arropa eroatera nijoan eta ezin nun erosi ez koloreikan, ez beste formarikan; praka guztiak ziran igualak, bakeroak denak beltzak, grisak... Eta como mucho, camisa granate bat. Ta oaintxe Zarara zuaz ta tienes todos los colores, todos los modelos y todas las formas. Orduan, hori dena aldatzen dijoa.*

**G001**

*Nik esango nuke baietz (gaur egun normalizatuago dagoela), hainbeste sare sozialekin eta horrela, pixka bat behintzat normalagoa dela. Erreferente pixka bat gehiago, ez dut esaten ez dutela pairatuko LGBTfobia, baina lagunen artean gehiago daudela.*

**BE002**

*Bai bai, es que nitan pentsatzen eta epoca horretan, invisible. Y eso que ya daba pistas, ¿e?, baina no... Jo es que ez dakit, oin adibidez institutuan lantzen diala LGBT gaixak, ospatzen diala inkluso jaixak! Ez dakit nola esan... Edo todo antes no existía directamente.*

**L006**

Halere, aurrekoek aipatu duten errealitate anitzago horren bide beretik, perspektiba anitzagoa bai baina mutilen artean desiraren orientazioak txuri ala beltz izaten jarraitzen duela uste duenak honela dio:

*Mutila-mutila ez dago oso onartua nik uste oaindikan. [...]  
Mutiletan da txuri edo beltz nire ustez.*

**B005**

Herria baino gehiago, gizartea aldatu dela aipatzen duenik ere bada, hau da, LGBTI+ pertsonen errealitatea onartuagoa egotea dinamika orokorrigo baten baitan sartzen dela. Are gehiago, normalizazio prozesu hau eredu zehatz baten baitan gertatzen ari delako kritika ere gaineratzen du.

*Baina nik ez dot uste herrian danik (aldatu dena, baizik eta) gizartea en general. Eta ikusgarritasun hori eman zaiona [...], mediatiko in dala, gai bat kriston bonboa ematen ai diazena alde guztietatik, onerako eta txarrerako. Bueno, behintzat ikusgarritasun (horrek) ematen dio jende askori askatasun puntu bat nik uste. Nik nire adinean ezagutzen dituten marika bakarra ni eta beste bat. [...] Oain ikusten adibidez ne anayan edadean eta... [...] Pasada bat! Pasada bat... eta nik uste dot hori bai dala gizartean onartuago ez, baina normalizatuago (dagoela).*

**G007**

*Ematen zaio ikusgarritasun gehio, baina beti ere normatibitatera gehien atxikitzen diazenak; bikote itxi bat, bikote gizon-gizon... Eta gutxi gehio. Edo berdin irtetzen diren erreferente guztiekin sare sozialetan. Bi bollera izango dira baina ezkontza estupendoekin. Orduan, ze punturaino da aurrerapauso bat? Ba nik ez det ikusten pausu bat aurrera; pausu bat aurrera igual izango litzake abolitzia matrimonioa.*

**G007**

Azken honi loturik, normalizazio prozesuaren baitan topatu daitezkeen arriskuekin kontuz ibili beharko ginatkeela adierazi da. Azken urteetan, LGBTI+ gaiak zuriketa arrosa egiteko erabili izan direla salatu dute sexu-askapen mugimenduko kolektibo eta elkarte askok. Zuriketa arrosaren edo pinkwashing-aren bidez, LGBTI+ kolektiboko kide eta aldarriekin bat egiten da, irekitasun eta aniztasun irudi bat emateko, hartara, haien marka, instituzio, espazio edo produktuarekiko atxikipena lortzeko. Dinamika horren helburu nagusia, jendearen aldeko iritzia jasoz, marka, instituzio, espazio edo produktu horiek eragiten dituzten bestelako zapalkuntzak (kolonialitateari

eta kapitalismoari lotuak egoten direnak, batez ere) ikusezin bihurtzea da.

*Kontuz horrekin ze Bilbon ere bandera pila bat daude leku guztietatik baña horrekin promozionatzen da bakarrik modu bat, izateko modu bat eta oso normatiboa gainera. Oso homonormatiboa. Bai, bisibilitate oso handia dau, baina a ver hor atzetikan, a ver zer dauan. Bilbok erakusten digu hor udaletxean plan bat dauala, azkenean Bilbo gayfriendly bihurtzeko baina izateko modu bakarra. Inoiz ez dute aipatzen lesbianak [...]. Da gayentzako, turismo gay ekartzeko, badakixetelako diru-jende bat dala, seme-alaba gutxi dakatenak ta hor merkatu bat ikusten dutelako. Ta hori erakartzeko besterik ez da. Bilboko plana hori da.*

**G010**

## Erreferenteak

### *Herrian erreferenteak edukitzearen garrantzia*

**A**restian aipatu den moduan, LGBTI+ pertsona izan ahal izateko baldintza sortzen dute herri batean erreferenteak. Halere, elkarrizketatuei galdetu diegu zergatik den garrantzitsua erreferenteak izatea. Aipatu digutenez, beharrezkoa da jakiteko zer nahi duzun eta zer ez duzun nahi; era berean, norbera heteroarauan sartzen ez dela ohartzen den unean erreferenterik ez izateak bakartuta eta “bitxo raro” moduan sentitzera eraman dezakeela aipatu da. Era berean, erreferenteak errealizazio pertsonalerako beharrezkotzat jotzen direla aipatu du beste batek. Azken batek, bere burua erreferente izan dela aipatu

du, eta uste du, atzetik datozeinei, gizon izanda, gizontasun hegemonikotik at kokatzeko aukera sortu diela.

*Nik erreferenteak, adibidez, bai euki ditxut. Jakiteko zer nahi naban eta jakitxeko zer ez. Baina netzako erreferenteak baziran emakume talde hori. Nahi dot esan, ni momentu batean hasten nauana dena dudetan jartzen esaten dot “hoiek pasa dutena eta gero...”, [...] hola izan zan hausnarketa “hoiek pasa dutena eta gero eta oaindikan kalean badabiz lasai, talde bat inda eta guzti hori, [...] zergatik nik ez dot ingo? [...] Bai izan ziala erreferenteak eta menos mal. Ze dudetan jartzen ari zarenian zerbait edo dakazu norbait begiratzeko goitik edo te puedes sentir un bicho raro. [...] Eta eukitzia noruntz begirau beti da inportantea.*

**L003**

*Zuk nahi dezun edo zure aspirazio pertsonaletan beti erreferente baten bila juten zara, edo eukitzea garrantzitsua da. Edo behintzat jakiteko-edo zenbat eta erreferente gehiago eukitzea edo aniztasuna euki, nik uste dut azkenean zure errealizazio pertsonalerako bidea badala, ze iteko aukera dakazun...*

**G009**

*Nik uste dot ointxe gazte bat ikustea neri arrosaz jantzita poltso batekin [...] igual berarentzako errezagoa da beak ere jartzea. Ni rekuerdoo dakatela izango naiz lelengo mutila atea dala boltsa batekin Elgoibarretikan.*

**G001**

Erreferenterik ez izatearen ondorioetako bat bakartuta eta arraro sentitzea bada, beste ondorioetako bat zeure burua ukatu zein zure buruarekiko indarkeria sortzea izan daiteke, plumofobia kasu.

*Nik hor dakaten espinita handixena da, nik Elgoibarren garatu nabala kriston plumofobia. Eta orduan, pentsatzen naban pertsona bat ezin zala desiragarria izan pluma baldin bazakan. Eta neri umeetan marika (esaten) hasten bazian ere, ezkutatzen naban azkenean pluma guztia, ba pentsatzen nabalako plumadun pertsonak ez dirala desiragarriak. [...] Eta orduan, identifikaziorik ez eukitzia, referenterik ez eukitzea nere kasuan holako gauzak sortu ditxu. Ba pluma dana tapatu eta oin konturatzen naiz ezin dotela deseraiki hoi ya. Orduan, netzako super inportantea da eukitzea ba referenteak plumadunak, pluma gabeak... ta referente baliogarririk.*

G010

Askok, urrunetik ezagutu bai, baina ez dute gertuko erreferenterik izan. Eta horren falta somatu dute. Agerikoa da, zenbat eta jende helduagoa izan, orduan eta erreferente gehiago aipatzeko gai izan direla elkarrizketatu ditugun LGBTI+ pertsonak. Gazteen artean, baina, erreferenteak apenas izan dituzte:

*(Zeintzuk izan dira zuretzako erreferenteak?) Inor ere ez. [...] Askoz hobeto euki banu erreferente bat eta ez nintzan izan beharko el que se come la cabeza de “Hola aterako naiz o será demasiado?”.*

G001

*Ez nuen benetako erreferenterik izan. Ezagutzen (nituen) bistaz edo pare bat LGBT pertsona bikote zirenak, baina ez nituen ezagutzen ez ezer. Gero bestela mutil trans bat, zena handiagoa eta... Ez nituen erreferente moduan ikusten, eta gustatuko litzaidake erreferente “ikusgarriagoren” bat edo izan banu.*

BE002

### *Izenez, abizenez eta intuizioz*

Arreta ematen duen zerbait da, elkarrizketatu ditugun LGBTI+ pertsona gehienak haien zapalkuntza elkarbanatzen zuten pertsonak izan dituztela erreferente moduan, eta zapalkuntza elkarbanatzen ez zen kasuetan, lesbianak edo bisexualak izan dira gizon gayak aipatu dituztenak erreferente ikusgarri moduan. Guztira, akorduan dituzten 8 bat erreferente aipatu dituzte.

Asko dirudite, baina kontuan izan behar dugu 50 urteko ibilbideaz ari garela. Hortaz, non daude Elgoibarko LGBTI+ pertsonak? Elkarrizketatu batek talde elkarrizketa egin genuenean aipatu zuen moduan, genero-adierazpen normatiboa jarraituz gero, aurrean ditugun guztiak ikusten ditugu heterosexual moduan; eta bitartean, begiratuak diren LGBTI+ pertsonak, armairuan, sexilioan eta hetero *passingean* daude.

Erreferente izatea ez da espazio neutrala. Izan ere, erreferente positibo edo negatibo bilakatu zaitezke. Elgoibarko kasuan, hetero-disidenteak izan diren pertsonak erreferentzia bat izan dira LGBTI+ pertsonentzat, haien pausoak jarraitu ala ez, herritarrentzat, oro har, erreferente negatiboa izanda ere.

Baina, erreferentzialtasunik lortu ez dutenak ere badaude. Elkarrizketatu baten hitzetan, beretzat lesbianak ez ziren existitu ere egiten. Beste hainbatek lesbianak ezagutu dituztela eta erreferente moduan izan dituztela aipatu duten arren, beharrezkoa deritzogu horri arreta jartzea.

Ikusgaitasunaren atalean ikusi moduan, heteroarauak genero bakoitzari ematen dion lekuak ere ikusgaitasunean, eta hortaz erreferentzialtasunean, berebiziko garrantzia dauka. Kasu honetan, emakume eta lesbiana izateagatik, ikusezintasun bikotz baten aurrean egongo ginateke.

*Lesbianak netzako ez dira existitu. [...] Gero nere kuadrilan agertu dira, baina pasa dan urtian esaten ta hola. Baina inoiz ez det euki pertsona bat que...*

**G007**

Pertsona berak, hausnarketa bat plazaratzen du ikusezintasunaren azalpen moduan, eta bat gatoz horrekin, atzean dagoen dinamika agerian geratzen delako: onartu eta ikusgarri egiten da “normatibitateragehien atxikitzen dena”. Era berean, erreferente ere bilakatzen da heteroarautik erradikalki ateratzen dena (genero adierazpenean, adibidez). Exotismotik begiratzen zaion arren, herriaren *tolerantziak* adierazle gisa funtzionatzen du. Tolerantzia ariketa, hegemoniatik soilik egin daitekeen ariketa da, hau da, *gutik* bestera edo *barrutik kanpora*. Are tolerantziak, zuriketa moduan funtzionatzen du, esan nahi baita, “desberdina den hori barneratzen dugu, bere exotismo eta bere arrarotasunarekin”. Beste era batera esanda: toleratzen denean esaten dena da: “*bestea* da, baina *gure bestea*”. Eta ariketa hau ere, homofobia da.

## Artikulazioa

**L**GBTI+ pertsonen artikulazioa beharrezkoa da heteroarauak jendarteko arlo guztiak hartzen dituen jendarte batean bizi garen heinean. Elkarrizketatu batzuek badute aurretik zerbait artikulatua egon denaren ideia. Elgoibarko jendea zen artikulatua zegoena, baina ez zen Elgoibarren artikulatu.

*Arakis eta Martin (eta) hauek [...] dudik gabe generoaren inguruan sortutako taldetxo bat zala. Egixa da hauek ziala pixka bat, nik uste dot, ideologikoki lotuak mobida Madrileñarekin hemengo gaur eguneko ideologiarekin baino. [...] Elgoibarreko jendia zian baina hemen etzian artikulatzen. Kanpora juten ziren: Londresera, Madrilera, hiriburuetara ere... Bilbon bertan, eta hemen bizi zian.*

**G010**

Baina orokorrean, Elgoibarren LGBTI+ pertsonak helburu politikoeekin artikulatu izanaren zantzurik ez da aurkitu. Azken aldian (2021) saiakera egiten ari dira instagram bidez zerbait artikulatzeko, baina oraindik taldea egituratzea ez da lortu.

Halere, elkarrizketetan artikulatzeko beharra agerian geratu da. Esan nahi da, atalaren hasieran aipatu den moduan, LGBTI+ pertsonen beharrak, desirak eta nahiak garatzeko forma bakarra artikulatzea dela.

Artikulatearen inguruan, hainbat iritzi bildu dira, Batetik, Elgoibarren LGBTI+ pertsonak politizatzeke beharra agerikoa dela aipatu da. Beste elkarrizketatu batek aipatu du, artikulateak indarra ematen duela, bisibilizatzeke indarra, eta horregatik dela garrantzitsua artikulatua egotea.

*Politizau bie da asko. [...] Bai, nik hori argi dakat. [...] Ez badago atzean kritika bat, gaizki.*

**G007**

*Kolektiboak guri ze indar ematen dozku? Guri ematen dozkun indarra da bisibilizatzea egoera bat gaur egun hor daona eta ematen dana; zapalkuntza batzuk, o sea, alde batetik zapalkuntza batzuk eta bestetik horiei aurre egiteke modua izan bada. Orduan, neretzake hor egotea inportantea da.*

**L003**

# ARLOZ ARLO PERTZIBITZEN ETA JASATEN DEN HOMOFOBIA ETA LGBTI+ FOBIA ETA HAINBAT ERALDAKETA PROPOSAMEN

Ikerketan, parte-hartzaileei hainbat arloren inguruan galdetu zaie, arloen egoeraren inguruan eta arlo hauek eraldatzeko dituzten proposamenen inguruan. Jarraian, arloz arloko erantzunak jasotzen dira. Bilketa honetan, indarkeriazko dinamikak jasotzen dira eta ez jada heteroarautik kanpo gertatzen diren hainbat dinamika. Helburua, arlo bakoitzean ematen diren indarkeriak identifikatu eta berau eraldatzeko pistak jasotzea izan da. Halere, arlo bakoitzean, behaketa sakonak eta talde elkarrizketak egin beharko lirateke egoeraren argazki xehea eta erreala egin ahal izateko.

---



## Harreman sareak: familia eta kuadrilla

### FAMILIA

*Homofobia eta LGBTI+fobia indarkeriaren pertzepzio zein kasua:*

- Heteroaraua erreproduzitzen da
- LGBTI+ pertsonen ikusezintasuna
- LGBTI+ pertsonak ez onartzea
- *Dead name* delakoa erabiltzea
- Hizkera homofoboa
- Heterosexualitate presuntzioa

*Eraldaketarako proposamena(k):*

- Beldurrak, emozioak eta sentimenduak lantzea
- Familiar nuklear heterosexuala zalantzan jartzea
- Familiaren ulerkera lantzea
- LGBTI+ gaien hitzaldia familientzat

### KUADRILA

*Homofobia eta LGBTI+fobia indarkeriaren pertzepzio zein kasuak:*

- Komentario pertsonal eta inbasiboak
- Lesbofobia
- Komentario homofoboak
- Heteroaraua erreproduzitzen da
- LGBTI+ errealitatearekiko interesik eza edo itxitasuna
- Aniztasunik eza

*Eraldaketarako proposamena(k):*

- Kuadrilen dinamika zabaltzea, saretzea

## Hezkuntza

*Homofobia eta LGBTI+fobia indarkeriaren pertzepzio zein kasuak:*

- Lesbianen ikusezintasuna
- Sexualitate tailerretan LGBTI+ errealitatea ezabatzea
- LGBTI+ errealitatea ukatzea berdintasun eta normaltasunaren diskurtsoaren izenean
- Materialean LGBTI+ ikusezintasuna
- Hezkuntza proiektuan LGBTI+ gaiak transbersalki ez lantzea
- Heteroaraua indarrean
- Komentario homofoboak
- Sexualizazioa irakasle baten aldetik
- Estereotipoak indarrean

*Eraldaketarako proposamena(k):*

- LGBTI+ gaietan formakuntza eta aholkularitza jarraitua
- Hezkuntza proiektuan LGBTI+ gaiak zeharka lantzea
- Material guztietan LGBTI+ errealitatea ikusaraztea
- Irakasleen inplikazioa handiagoa izatea haur eta gazteen problematiketari
- Sexu jazarpenen aurkako protokoloa

## Aisialdia

*Homofobia eta LGBTI+fobia indarkeriaren pertzepzio zein kasuak:*

- Hezkuntza ez-formalean estereotipo LGBTI+foboak indarrean
- Jai giro heteroarautua, matxista eta homofobia / LGBTI+fobia
- Dantza taldeetan generoaren arabera banaketa
- Kiroldegiko aldagelak generoaren arabera banatuta, trans errealitatearen lanketarik egin gabe
- Aisialdi talde batzuetan, generoaren arabera banatutako dinamikak garatzea
- Gizonen kirol taldeetan giro homofobo eta LGBTI+fobiko orokortua

*Eraldaketa(r)ko proposamena(k):*

- Balioen lanketa
- Aisialdi giro desberdinetan bisibilizazioa
- Kiroldegiko aldageletako letreroak kentzea

## Kultura

*Homofobia eta LGBTI+fobia indarkeriaren pertzepzio zein kasuak:*

- Jaietan, eskaintza kultural tradizionala
- Musika arloan heteroaraua indarrean

*Eraldaketa(r)ko proposamena(k):*

- Jaietan heteroarautik at dauden artistak ekartzea
- LGBTI+ errealitateen ikusgarritasuna

## Espazio publikoa

*Homofobia eta LGBTI+fobia indarkeriaren pertzepzio zein kasuak:*

- Jendearen begiradak
- Txutxumutxuak
- Mehatxuak
- Txistek
- Komentarioak

*Eraldaketarako proposamena(k):*

- Ikusaraztea eta agerian jartzea

## Parte-hartze politikoa

*Homofobia eta LGBTI+fobia indarkeriaren pertzepzio zein kasuak:*

- Heteroaraua erreproduzitzea

*Eraldaketarako proposamena(k):*

- LGBTI+ politikak garatzeko proposamena egiteko taldea sortzea
- Ikusgaitasuna eta erreferentzialtasuna

## Osasun arloa

*Homofobia eta LGBTI+fobia indarkeriaren pertzepzio zein kasuak:*

- Heterosexualitate presuntzioa
- Transfobia
- Serofobia
- Anbulatorioan LGBTI+ errealitateekiko ezjakintasuna
- Anbulatorioan LGBTI+ errealitateen inguruko aurreiritzi eta estigmatizazioa

*Eraldaketarako proposamena(k):*

- LGBTI+ gaietan hezteak
- Rexak jartzeko leku seguru bat jartzea
- LGBTI+ gaietan gertatzen diren aurrerapenei adi egotea

## Lan-arloa

*Homofobia eta LGBTI+fobia indarkeriaren pertzepzio zein kasuak:*

- Armairuan mantentzea biziraupen estrategia gisa
- Esparru heteroarautua
- Transfobia
- Homofobia

*Eraldaketarako proposamena(k):*

- LGBTI+fobiari aurre egiteko diagnostiko eta protokoloak
- LGBTI+ errealitateen gaia mahai gainean jartzea

## Administrazio publikoa

*Homofobia eta LGBTI+fobia indarkeriaren pertzepzio zein kasuak:*

- LGBTI+ errealitateen ikusgarritasun eza
- Txutxumutxuak
- Dirulaguntzen funtzionamendua
- Kasilla bitarrak
- Paperak eta informazioa emateko funtzionamendua

*Eraldaketarako proposamena(k):*

- LGBTI+ pertsonen estigma eta seinalamendurik gabeko arreta ematea
- Inprimakietan generoa adierazteko aukera bitarra aldatzea
- Araudien eta paper administratiboak aldatzea
- LGBTI+ ekimenak egin nahi dituenari udalak erraztasunak ematea
- Udalak LGBTI+ ekimenak sustatzea

## Bestelakoak

Egiturazko indarkeriaren aurrean, egiten den ekimen oro ikuspegi integral batetik egitea. Adibidea:

- Eragile batek baimena eskatzen badio udalari zerbait egiteko, eta horrek itxura xenofoboa badu, baimenik ez ematea









